

# Benetako New York



New Yorken bizi den Samuel Ciaurriz kolaboratzailea elkarrizketatu dute Euskalerra Irratiko *Irrintzi Plaza* saioan. Film askotan ikusi izan ditugun zenbait topiko aztertzearekin batera, benetako *sagar handia* nolakoa den deskribatuko digu.

Gezurrezkoa ote da zineman erakusten diguten hiria?



Audioa entzun bitartean, galderen erantzun egokia aukeratu.

Argazkia: Pixabay

## 1) Nolakoa da, Ciaurrizen hitzetan, New Yorkeko metroa?

- Beti dago zikin eta zarata handia entzuten da bertan, baina, halere, garraiobide eroso da hiritarrentzat.
- Zenbait lekutako metroa, Bronx eta Brooklyn inguruan, adibidez, beldurgarria da, baina, oro har, liskarrik ez dagoela esan daiteke.
- Ez da filmetan aurkeztu izan diguten bezain beldurgarria.

## 2) Zein informazio ematen du Ciaurrizek New Yorkeko faunaz?

- Leku askotan ikusten dira arratoiak, besteak beste, zabor-poltsen inguruan.
- Hiriko estolderian sugeak, krokodiloak eta arratoi ugari daude.
- Kaleetako edukiontzietan lortzen dute jana hiriko animalia guztiek.

## 3) Tximinia moduko irteera batzuetatik New Yorkeko kaleetako lurzorutik ateratzen den ke edo lurrina benetakoa da?

- Ez, filmetarako erabiltzen den efektu berezi baten ondorio da.
- Bai, oraindik ere badirelako ur-lurrunaren presioari esker funtzionatzen duten berogailuak.
- Gaur egun ez dugu horrelakorik ikusiko, antzinako tranbia batzuek erabiltzen zuten sistema hidraulikoaren ondorio zelako.

## 4) New Yorktar askok jaten al dute kale edo parkeetan?

- Oro har, bai, baina otorduak egiteko aukera osasungarriagoetarako joera-aldaketa sumatzen hasi da.
- Bai, etxean tuperra prestatu eta kanpoan jateko ohitura handia dute.
- Lehen bai, baina gaur egun bulegoan bertan jateko ohitura gailendu da.

## 5) Laburbilduz, zein izan da Samuel Ciaurriz elkarrizketatzeko arrazoia?

- New York hiriarri dagokionez, zinea eta errealitatea bat datozen ala ez egiaztatzea.
- New York hiriarri zinean eskaini zaion garrantziaz eztabaidatzea.
- Irratiko kolaboratzaileak New York hirian izan duen eskarmentua entzuleekin partekatzea.

 euskalerrairratia <sup>eEUS</sup>



<https://labur.eus/alQ7L>

## ERANTZUNAK

### 1) Nolakoa da, Ciaurrizen hitzetan, New Yorkeko metroa?

- a) Beti dago zikin eta zarata handia entzuten da bertan, baina, halere, garraiobide eroso da hiritarrentzat.
- b) Zenbait lekutako metroa, Bronx eta Brooklyn inguruan, adibidez, beldurgarria da, baina, oro har, liskarrik ezdagoela esan daiteke.
- ✓ c) Ez da filmetan aurkeztu izan diguten bezain beldurgarria.

### 2) Zein informazio ematen du Ciaurrizek New Yorkeko faunaz?

- ✓ a) Leku askotan ikusten dira arratoiak, besteak beste, zabor-poltsen inguruan.
- b) Hiriko estolderian sugeak, krokodiloak eta arratoi ugari daude.
- c) Kaleetako edukiontzietan lortzen dute jana hiriko animalia guztiek.

### 3) Tximinia moduko irteera batzuetatik New Yorkeko kaleetako lurzorutik ateratzen den ke edo lurruna benetakoa da?

- a) Ez, filmetarako erabiltzen den efektu berezi baten ondorio da.
- ✓ b) Bai, oraindik ere badirelako ur-lurrunaren presioari esker funtzionatzen duten berogailuak.
- c) Gaur egun ez dugu horrelakorik ikusiko, antzinako tranbia batzuek erabiltzen zuten sistema hidraulikoaren ondorio zelako.

### 4) New Yorktar askok jaten al dute kale edo parkeetan?

- ✓ a) Oro har, bai, baina otorduak egiteko aukera osasungarriagoetarako joera-aldaketa sumatzen hasi da.
- b) Bai, etxean tuperra prestatu eta kanpoan jateko ohitura handia dute.
- c) Lehen bai, baina gaur egun bulegoan bertan jateko ohitura gailendu da.

### 5) Laburbilduz, zein izan da Samuel Ciaurriz elkarrizketatzeko arrazoia?

- ✓ a) New York hiriarri dagokionez, zinea eta errealitatea bat datozen ala ez egiaztatzea.
- b) New York hiriarri zinean eskaini zaion garrantziaz eztabaidatzea.
- c) Irratiko kolaboratzaileak New York hirian izan duen eskarmentua entzuleekin partekatzea.

## HIZTEGI LAGUNGARRIA

- **Gure kolaboratzailearekin solas eginez.** Nola? solas eginda, hitz eginez.
- **Egiazkoak izanen diren edo.** Egiazkoak izango diren edo.
- **Ez dela oso erosoa metroan joatearena.** Ez dela oso eroso metroan joate hori, metroan joatea.
- **Uzten dira orduetan zehar.** Uzten dira hainbat orduetan, hainbat orduz.
- **Tximinia moduko batzuetatik.** "Moduko" hitza erabiltzen da antzekotasuna adierazteko: tximinia gisako batzuetatik.
- **Etxeetako kalefakzioa (berogailuak).** Euskaraz hitz asko sortu dira "gailu" osagaia erabiliz: berogailu, hozkailu, igogailu, irabiagailu, iratzargailu, grabagailu, ordenagailu...
- **Hori erabiltzeari utzi zioten.** Ez zuten gehiagotan erabili. Zeri utzi, aditza + -(z)eari: erabiltzeari utzi, idazteari utzi, esateari laga, jolas egiteari utzi...

# TRANSKRIPZIOA

**Esataria.** Ze(r) garrantzitsua den zinema guretzat, ezta? Zenbat iruditzen zaigun ikasten dugula zinemarekin, ze(ren) klaro, pelikuletan agertzen diren gauzak benetakoak al dira? Goazen konprobatzera ea hori, horietako batzuk behintzat egiazkoak ote diren New Yorken bizi den gure kolaboratzailearekin solas eginez, noski. Samuel Ciaurriz, arratsalde on.

**Samuel Ciaurriz kolaboratzailea.** Arratsalde on. Egun on, egun on.

**Esataria.** Egun on, egun on zuretzat. Aizu, hemen komentatzen ari ginen, bueno ba, gure kulturaren parte bat da pelikuletatik ikusten eta ikasten duguna. Eta ez dakigu, egia esan, gero gauza batzuk egiazkoak izanen diren edo, edo pelikuletako kontuak. New Yorkera joanda, esate baterako, metroa nolakoa da?, pelikuletan ikusten den bezalaxe, horren beldurgarria?

**Samuel Ciaurriz.** Ba badago underground, baina ere badago goitik d(ih)oana, pelikuletan ere ikusten den [diren] kaleen gainetik d(ih)oazten estruktura horiek, batez ere Brooklyn aldean eta, eta Queens aldean ere bai, eta Bronx-en ere... Egia da leku batzuetan pixkatxo bat beldurgarria bihurtu daitekeela, hori bai, baina egia da ere bai nahiko normala dela, pues (bada) hori, bidaiari normal bat egiteko. Bai esan beharko nukeela, azkeneko hilabete hauetan, ba hori, liskar batzuk egon direla eta bai egia dela askotan ba usaiak, zikinkeria, zarata bai ematen direla. Eta leku batzuetan pues ez dela oso eroso metroan joatearena...

**Esataria.** Horixe. Horixe. Eta beste irudi bat duguna, Samuel, bada New Yorkeko estolderietan badagoela fauna oso bat. Nik ez dakit, krokodilorik edo holakorik, edo sugerik egonen den New Yorkeko estoldetan, baina arratoiak?

**Samuel Ciaurriz.** Estolderian bakarrik balitz. Estolderian bakarrik balitz. Kanean, metroan desde luego (behintzat) ikusten dela. Kaleetan, gainera, ez dago kontenedorerik, zabor poltsa guztiak kanean uzten dira orduetan zehar. Klaro, (jakina), kanean bizi diren pues animalia horiek guztiak badoaz hara bazkaltzera edo afaltzera...

**Esataria.** Horixe. Eta pelikuletan ere batzuetan ikusten ditugu holako ke-zerrendak, hola, ba ez dakit, tximinia moduko batzuetatik ateratzen direnak edo... Hori egia da?

**Samuel Ciaurriz.** Alkantarilletatik (estoldetatik) ere bai.

**Esataria.** Baita?

**Samuel Ciaurriz.** Hori, egia esan, ez da kea, ba(da) da ur-lurruna. Eta bada, hemen, hirian bertan mende-hasieran bazegoelako ur-lurrunaren presioarekin funtzionatzen zuen sistema hidrauliko oso bat. Esate baterako, etxeetako kafefakzioa (berogailua) berotzeko, eta horrekin batera kaleko pues tranbiak, antzinako tranbiak edo sistema, mugimendu-sistema horiek guztiak presio horrekin erabiltzen ziren. Orduan, o sea, hori erabiltzeari utzi zioten momentu batean, baina klaro, gauza batzuk oraindik, kafefakzioak bezala, sistema horrekin funtzionatzen du. Orduan, presio hori liberatzeko (askatzeko) badago [badaude] kale askotan horrelako tximinia batzuk. Eta hori ba(da) da ur-lurruna.

**Esataria.** Bueno, behintzat kutsagarria ez da izanen, ez?

**Samuel Ciaurriz.** Ez.

**Esataria.** Zikina ez da izanen. Ongi. Ongi. Aizu, eta beste topiko bat da: asko jaten du jendeak kanean edo parkeetan?

**Samuel Ciaurriz.** Bai. Egiten da, asko gainera. Egia da ere bai, nik uste dut tendentzia (joera) pixka bat aldatzen ari dela, batez ere bazkalordurako, aukera osasungarriagoetarako tendentzia bat. Orduan, bai normala dela, ba agian ez kanean hartzekoa, baizik eta eskatu eta, eta bere lantokian jaso. Tuperrarena, desde luego, ez da horrenbeste eramaten hemen.